



**Título:** GENERO-IDENTITATEA EUSKAL DANTZA TRADIZIONALAREN ERAIKUNTZAN.

**Nombre:** ARAOLAZA ARRIETA, OIER

**Universidad:** Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea

**Departamento:** Comunicación audiovisual y publicidad

**Fecha de lectura:** 30/04/2020

**Programa de doctorado:** Programa de Doctorado en Comunicación Social por la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea

**Dirección:**

> **Director:** LEIRE ITUARTE PEREZ

> **Director:** NEREA ARESTI ESTEBAN

**Tribunal:**

> **presidente:** Xabier Itcaina

> **secretario:** MIREN LLONA GONZALEZ

> **vocal:** MELANIA MOSCOSO PÉREZ

**Descriptor:**

> DANZAS Y FIESTAS

> TRADICION

> DANZA Y COREOGRAFIA

**El fichero de tesis** ya ha sido incorporado al sistema

> <http://hdl.handle.net/10810/51207>

**Localización:** REPOSITORIO INSTITUCIONAL E.H.U./U.P.V.

**Resumen:** Euskal dantza tradizionalan indarrean diren genero-identitateen eraikuntza prozesuaren aro bati begiratzen dio tesi honek. XIX. mende bukaeran eta XX. mendearen lehen herenean, euskal identitate nazaionalaren eraikuntzarekin batera euskal dantzaren tradizio berria atondu zen. Dantza tradizio hori genero ikuspegi bitarrarekin eraiki zen, eta genero bakoitzari erreperitorio, janzkera eta dantzakera bereiziz osatutako rol estereotipatuak egotzi zitzaizkion: maskulinitatea gorpuztu zuten ezpata-dantzariak eta feminitate eredu berria poxpolinek. Dantzei genero marka ezarri zitzairen eta ordura arte gizon eta emakumeek dantzatzen zituzten dantzak genero bakar bati lotura birformulatu ziren. Horrela, aurrekua, testuinguru ludiko zein erritualetan zabalduna zen dantza, ordura arte emakumeek ere dantzatu bazuten ere, eksklusiboki gizona dantza bihurtu zen, eta emakumeek inoiz dantzatu izana ere ukatu zuen narrativa sortu zen. Emakumeek euskal dantzetan, eta bereziki aurrekuan, tradizioz ez direla dantzatu dioten sinesmen okerrak XXI. mendera arte iraun badu ere, azken urteotan hainbat froga dokumentalek agerian jarri da ukazio horren faltsutasuna. Aurrekariak eskaintako begiradan euskal dantzaren historian emakumeek izan duten parte-hartzearen testigantza biltzen



ditu tesi honek. Ondoren 1874-1936 bitarteko aroan zentratuta, euskal dantza tradizionalaren eraikuntzan genero-identitateak nola aldatu eta konfiguratu ziren aztertu da.